

**A17**  
**Zegaiti begiratu gura ez dozu...**

Hamabost estrofa bildu ditugu poema honetan, hurrengo datorren gaztelaniazkoaren estrofa-egitura berekoak: zortzi lerro dodekasilabo (baten bat endekasilaboa eta baten bat hamahiru silabakoa ere bada), ABBAACCA errimarekin, gaztelaniazko metrikari *copla de arte mayor* edo *octava castellana* esaten zaiona hain zuzen, hau da, batik bat XV. mendean eta XVI. mendean hasieran erabilitako estrofa mota bat. Dirudenez lehenengo 11 estrofak idatzi dira lehenengo idatzaldian, baina horien jarraipena dira zalantzarik gabe ondokoak ere, horietan ideia berri bat agertzen den arren (*zu / ni* alderaketa, neskaren eta mutilaren ezaugarriak eta jarrerak paraleloan emanez); azken estrofa (hamabosgarrena) biribildu gabe dago, hala neurriari dagokionean nola errimari dagokionean.

Idea nagusia beste poema batzuetan ere ikusi dugu: mutilak dontzeila krudelaren edertasuna goraiatzetan du, baina arreguraz eskatzen dio kasu egiteko; poema honetan, Amorearen mandamentua (bigarren estrofan adierazia) da horretarako argudio nagusia.

<1185r> Zegaiti begiratu gura ez dozu  
 zugaiti nola nagoan kantaetaz?  
 Bihotzau jo deustazu anetx<sup>1</sup> fletxaz,  
 nigaz konturik egin nahi ez dozu;  
 begira egizu zer egiten dozun, 5  
 nuen<sup>2</sup> kontra ta nola oita<sup>3</sup> zabilzen,  
 amoreak zer deutsun zuri aginzen.  
 Belarriok irekazu eta danzuzun:<sup>4</sup>

—Donzeila guztioi deustet aginketan<sup>5</sup>  
 dagiela amoraduok ondo hartu; 10  
 honegaz linda guztiok beukae kontu,<sup>6</sup>  
 zerren joango nax neurau eskaetan;<sup>7</sup>  
 kurela ifiniko dot estuetan,<sup>8</sup>  
 baldin da<sup>9</sup> mandamentu hau goarda ez badez.<sup>10</sup>  
 Nik hau erraz daiket<sup>11</sup> neure partez, 15  
 hasi banadi amorez konbatietan.—

Amoreak enzun dozu, ene laztana,  
 oi bere mandamentuan zer dioan;<sup>12</sup>

<sup>1</sup> *anetx*: ‘anitz’.

<sup>2</sup> *nuen*: ‘noren’.

<sup>3</sup> *oita*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>4</sup> *Belarriok irekazu eta danzuzun*: ‘belarriok ireki itzazu eta entzungo duzu’.

<sup>5</sup> *deustet aginketan*: ‘agintzen diet’.

<sup>6</sup> *beukae kontu*: ‘eduki bezate kontu’.

<sup>7</sup> *eskaetan*: ‘eskatzen’; kontu eskatzera, alegia.

<sup>8</sup> *ifiniko dot estuetan*: ‘estuasunean ipiniko dut, kinka larrian jarriko dut’.

<sup>9</sup> *baldin da*: ‘baldin eta’.

<sup>10</sup> *goarda ez badez*: ‘gorde ez badeza’.

<sup>11</sup> *erraz daiket*: ‘erraz egingo dut’.

<sup>12</sup> *Amoreak enzun dozu, ene laztana, / oi bere mandamentuan zer dioan*: ‘ene laztana, entzun duzu Amoreak bere mandamentuan zer dioen’; ohiz kanpoko hitz-ordena darabil; latindar literaturan ohikoak dira halakoak, eta euskal idazleen artean Etxeberri Ziburukoa aipa genezake eredu klasiko

<1185v>	apa bat baneidizu <sup>13</sup> aho gozoan; bakutsu <sup>14</sup> ene fedea firmea dana. <sup>15</sup> Donzeilea, arren, egizu ene esana, zegaiti zuk ez dozu ezer galduko; neure bizian ez zaut anzituko, <sup>16</sup> zuretzat izango da nik dodana.	20
	Zu zara eder guztioen kapitana, zeruko irargi zuria dirudizu; ene guztiau zeure egin egizu, inor baino ederrago zareana. Libertadeau joan jatan zuregana, ni bizi izaatea zure eskuan dago, remedioaren esperanzaz beti nago, zeina bakit, <sup>17</sup> larrosatxoa, zugar dana.	25 30
	Espantadurik <sup>18</sup> nago, donzeilea: bihotzoi nola dozu horrein <sup>19</sup> kurela? Tratadu ze nagizu <sup>20</sup> beti honela; enzuzu, dama guztioen estreilea: gura dot relajadu <sup>21</sup> kereilea; <sup>22</sup> osatu ene llageau, nahi badozu. Larrosa maiatzekoa, nola dozu enetzat horrein gogor murailea?	35 40
<1186r>	Donzeilea, piadadez <sup>23</sup> har nazazu; barriz gura deusut erregutu: katea gehiagogaz ez ni lotu, neure bihotzau libre jafindazu; <sup>24</sup> bihurtu libertadea egidazu, <sup>25</sup> alegeratu didin ene gogoa. Zu serbitzeko handi dot deseoa; aldi bat <sup>26</sup> zeure besoan naratzazu. <sup>27</sup>  Ediraiten <sup>28</sup> eztau inork munduan	45

---

horren jarraitzaile. Lazarragarengan adibide bakanetakoa dugu hau, eta ez da kontu argia eredu jakin bati segika egindakoa ote den.

<sup>13</sup> *apa bat baneidizu*: ‘musu bat egin (eman) ahalko nizuke’.

<sup>14</sup> *bakutsu*: ‘badakutsu, ikusten duzu’; irakur bedi *bakutsu*.

<sup>15</sup> *dana*: ‘dela’; *-na* konpletiboa.

<sup>16</sup> *ez zaut anzituko*: ‘ez zaitut ahantziko, ahaztuko’.

<sup>17</sup> *bakit*: ‘badakit’.

<sup>18</sup> *Espantadurik*: ‘harriturik, miraz gelditurik’.

<sup>19</sup> *horrein*: ‘horren’.

<sup>20</sup> *Tratadu ze nagizu*: ‘ez nazazu tratatu’.

<sup>21</sup> *relajadu*: ‘apaldu’.

<sup>22</sup> *kereilea*: ‘kexa’.

<sup>23</sup> *piadadez*: ‘piedadez, errukiz’.

<sup>24</sup> *jafindazu*: ‘ipin iezadazu’.

<sup>25</sup> *bihurtu libertadea egidazu*: ‘libertatea bihurtu iezadazu’.

<sup>26</sup> *aldi bat*: ‘aldi batez, une batez, memento batez, istaño batez’.

<sup>27</sup> *naratzazu*: ‘eratzan nazazu, besarka nazazu’.

<p>zu lako donzeila bat hain lindarik;          sekula jaio ez da amoradurik          ni duin<sup>29</sup> firmerik ene lekuan.<sup>30</sup>          Ene gaz jarri zatez partiduan,<sup>31</sup>          zegaiti honezkero<sup>32</sup> da denporea;          berba bat egidazu, traidorea,          plazaz edo bestela estalduan.<sup>33</sup></p>	<p>50</p> <p>55</p>
<p>Nigana zaozela dirudizu          enojadarik beti kausa baga;          askotan egote nax<sup>34</sup> berba baga;          orain, edola bere, ze nafinzu;<sup>35</sup>          aldi bat,<sup>36</sup> perla lindea, egin egizu          nigaz, ordu bakotx<sup>37</sup> bat kunplidua.<sup>38</sup>          Zu zara ene begioen espilua;          azkero<sup>39</sup> zeure eskuogaz<sup>40</sup> hil nagizu.</p>	<p>60</p>
<p>Jaunorrek ez dindala<sup>41</sup> ondasunik,          gogoau baldin badot bestegana;          horrein kruel izaten<sup>42</sup> enegana          nik merezidu ez dot zureganik.          Sekula nik ez oi dot beste lanik,          honela iragaiten<sup>43</sup> jat gau-egunak;          hain dira ene begiok helzaidunak,<sup>44</sup>          zugana laster doaz eneganik.</p>	<p>65</p> <p>70</p>
<p>&lt;1186v&gt; Beti begira nago zuregana,          ezin azartu<sup>45</sup> nax ezer esaten;          kontentu-deskontentuak puntu baten<sup>46</sup>          laster etorten dira enegana.          Badozu zeure gogoia bestegana,          alferrik engainadu ze nagizu,</p>	<p>75</p>

<sup>28</sup> *Ediraiten*: ‘edireten, aurkitzen’.

<sup>29</sup> *duin*: ‘bezain’.

<sup>30</sup> *ene lekuan*: ‘ene herrixkan’; alegia, ahapaldiko lehen lerroko *munduan*-i kontrajarriaz.

<sup>31</sup> *jarri zatez partiduan*: ‘jar zaitetz harremanetan’.

<sup>32</sup> *honezkero*: ‘dagoeneko’.

<sup>33</sup> *plazaz edo bestela estalduan*: ‘agerian edo bestela ezkutuan’.

<sup>34</sup> *egote nax*: ‘egoten naiz’; *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*n*- hurrengo silaban).

<sup>35</sup> *ze nafinzu*: ‘ez nazazu ipini (berba gabe)’.

<sup>36</sup> *aldi bat*: ‘une bat, denbora bat, istant bat’.

<sup>37</sup> *bakotx*: ‘bakar’.

<sup>38</sup> *kunplidua*: Ordu bete baino gehiago, alegia.

<sup>39</sup> *azkero*: ‘beraz’.

<sup>40</sup> *eskuogaz*: ‘esku hauekin/horiekin’.

<sup>41</sup> *ez dindala*: ‘eman ez diezadala’.

<sup>42</sup> *izaten*: ‘izatea’, *merezidu* aditzaren osagarria.

<sup>43</sup> *iragaiten*: ‘iragaten, igarotzen’.

<sup>44</sup> *heltzaidunak*: ‘heltzeko edo atxikitzeko gaitasuna duten (begiak)’, edo ‘(begi) harrapariak’, edo halako zerbait bide dira. Hapaxa da eta ez dakigu ziur zer esan nahi duen, baina *heldu* aditzetik eratorria bide da.

<sup>45</sup> *azartu*: ‘ausartu’.

<sup>46</sup> *puntu baten*: ‘une batean, berehala’.

	zeure gogoko barria esan egizu, ikasi nik dagidan zugan dana.	80
	Parerik eztozuna al <sup>47</sup> dakizu, guztioen gainteko larrosea, eguzki ederraren esposea; <sup>48</sup> hagaiti zuk honela narabilzu. Kundizio kurelok nahi bekizu <sup>49</sup> honezkero <sup>50</sup> zeurganik kenzaitea; <sup>51</sup> beraro <sup>52</sup> har nazazu, traidorea, edo bestela noxbait <sup>53</sup> hil nagizu.	85
	Donzeilea, zuk banozu sentietan, <sup>54</sup> sentitzen zaitut, bai, zeurori bere; zuk banazauzu <sup>55</sup> ni, bai nik zu bere; zuk ni legez, nik zu zaut adietan. <sup>56</sup> Ze gabilzaden beti puntuetan, <sup>57</sup> dagigun konbersadu alkargaz; zu nigaz konfesadu, ni zuregaz, alkar daratzagula besoetan. <sup>58</sup>	90  95
<1187r>	Nik negar dagidanean, <sup>59</sup> zu zaoz <sup>60</sup> barrez; nik barre dagidanean, zu tristerik. Banago zure aldean jasarririk, <sup>61</sup> itzulten dozu buruoi grabedadez; <sup>62</sup> berbarik badegizut <sup>63</sup> poridadez, <sup>64</sup> gogorrik jarten zara berehala. Askotan, zu bazina pedernala, edo ni sufritzeko baninz hathez! <sup>65</sup>	100

<sup>47</sup> *al*: ‘dirudienez, ziur aski’; *al* honek probabilitate handia adierazten du.

<sup>48</sup> *eguzki ederraren esposea*: Erromatar mitologian, betiere bertsio batzuetan, Diana jainkosa zen eguzkiaren emaztea, eta ilargiarekin identifikatzen zen (cf. 26. lerroko *zeruko irargi zuria*).

<sup>49</sup> *Kundizio kurelok nahi bekizu / honezkero zeurganik kenzaitea*: ‘nahi bekizkizu/itzazu (ezarri dizkidazun) baldintza krudel horiek berehala zeugandik kendu’.

<sup>50</sup> *honezkero*: ‘berhala’.

<sup>51</sup> *kenzaitea*: ‘kentzea’.

<sup>52</sup> *beraro*: ‘bigunki, leunki’.

<sup>53</sup> *noxbait*: ‘behingoz’.

<sup>54</sup> *banozu sentietan*: ‘sentitzen banauzu’.

<sup>55</sup> *banazauzu*: ‘banazaguzu, ezagutzen banauzu’.

<sup>56</sup> *zaut adietan*: ‘aditzen zaitut, ulertzen zaitut’.

<sup>57</sup> *Ze gabilzaden beti puntuetan*: ‘ez gaitezen ibili beti eztabaidan’.

<sup>58</sup> *alkar daratzagula besoetan*: ‘elkarren besoetan eratzanik (besarkaturik) gaudelarik’.

<sup>59</sup> *negar dagidanean*: ‘negar egiten dudanean’.

<sup>60</sup> *zaoz*: ‘zagoz, zaude’.

<sup>61</sup> *jasarririk*: ‘jesarririk, eseririk’.

<sup>62</sup> *grabedadez*: ‘seriotasunez’.

<sup>63</sup> *berbarik badegizut*: ‘berbarik, hitzik egiten badizut’.

<sup>64</sup> *poridadez*: ‘argi eta garbi, itzulgingururik gabe’.

<sup>65</sup> *Askotan, zu bazina pedernala, / edo ni sufritzeko baninz hathez!*: ‘Askotan, oxala zu bazina pedernala bezain gogorra, eta ni pedernalaren kolpea sufritzeko haitzez(koa) banintz!’. A17: 118 bertso-lerroarekin batera ulertu dugu esaldi hau, mutilak neskaren erdeinua eta krudeltasuna maiteko balitu bezala.

Neskea zara zu ta ni gizona; zuk legez ditut nik narru zuriak; <sup>66</sup> zuk bere bai nik legez haragiak; zuk legez nik bere dot gorputz ona; narabilzuna legez <sup>67</sup> horra-hona, haxeak oi darabil beletea.	105     110
Zarean esadazu, donzeilea, kastaz benturaetan <sup>68</sup> amazona. <sup>69</sup>	
Amorea <sup>70</sup> da honako ez dakit zer bat, etorten da harako eztakit nundi; eztakit nola bihotzean sarzaiten da <sup>71</sup> zuk agin dagizuna egiteko.	115
Dudatzen badozu, ene laztana, asko <sup>72</sup> da ditzoso desdixaetan. <sup>73</sup> Nik hain on baneu bozau, <sup>74</sup> kantatzeko padezietan dodan doloreak!	120

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A17 – Zegaiti begiratu gura ez dozu... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

<sup>66</sup> *narru zuriak*: Irudi luke *narru zuriak* adierazpidea nobleen larruaren kolorearekin lotuta dagoela; nobleek ez zuten lanik egiten eta, beraz, eguzkiak ez zuen haien larruazala belzten. Hortik sortu bide zen gaztelaniazko *sangre azul* esapidea, gero beste hizkuntza batzuetara hedatu dena; izan ere, larrua zuri-zuria izanik, zainak erraz ikusten baitira, halako eite urdinxka hartuz.

<sup>67</sup> *narabilzuna legez*: ‘narabilzun legez, narabilzun bezala’.

<sup>68</sup> *benturaetan*: ‘menturaz, beharbada’.

<sup>69</sup> *amazona*: Amazonek emakume gerlarien herria osatzen zuten, greziar mitologiaren arabera. Lazarragak zalantzarik gabe ezagutzen zuen *Crónica Troyana* (Lisboa, 1490) liburuan, hiru titulutan agertzen dira (36., 37. eta 80. tituluetan); orobat ezaguna bide zuen *Orlando Furioso* (1549) gaztelanariatuan ere agertzen dira; baina are gai topikoa zela ere esan daiteke XVI. mendeko literaturan orohar, eta bereziki zalduntza-liburuetan (cf. Marín Pina 1989).

<sup>70</sup> *Amorea ... doloreak*: Azken ahapaldia (A17: 113-120 bertso-lerroak) poemaren hirugarren idatzaldian erantsi da, zirriborro eta zuzenketa ugarirekin, eta ematen du oraindik biribildu gabe dagoela (errimak eta neurriak hori salatzen dute).

<sup>71</sup> *sarzaiten da*: ‘sartzen da’.

<sup>72</sup> *asko*: ‘jende asko’ hain zuzen.

<sup>73</sup> *ditzoso desdixaetan*: esaldi hau A17: 103-104 bertso-lerroekin batera ulertu dugu, neskaren erdeinua maiteko balu bezala.

<sup>74</sup> *Nik hain on baneu bozau*: ‘Oxala nik ahots ona banu!’.